

Kennedy: zuzentasuna

Fidel Castro: "teddy boy"?

Kennedy lendakariak, bere lenengo berbaldian, olako gauza zuzen eta ederrak esan dauz:

"Gizonaren eskubideak ez datoz Estatu baten ontasunetik, Jainkoagandik baiño". "Lur onetan Jainkoaren naia, genrea balitz lez betetan alegindu bear gara".

Kennedyk, bere indar guztiagaz, alkar lagundutera dei egin deusku, bearrizantik gorrienean aurkituten diranetatik asita.

Gizon adoretzu onen berbak, itxaropen apur bat sortu dabe mundu artekatu onetan: konfiantzea lako zeozer. Gaur bake larria daukagu benetan; bildurrez egiñeko bakea. Gizona, bere eskuetatik urten daben izakien aurrean dardarka aurkituten da, bildurgarriak diralako. Ondo esan dau Kennedyk: "Gizonak ba-dauko munduko pobretasun guztia desegiteko almena, baiña beste alde batetik, bizitzaren errasto danak garbituteko indar bildurgarria be bai bere eskuetan".

"Anaitasuna bear dogu", esan dau Ipar-amerikako lendakariak. Indarrezko bakea trixtea da. "Legez egindako ekilibrioa bear dogu: indartsuak zuzenak izanez, argalak pozik aurkitu daitezcan". Zuzentasuna: gizonaren deretxoak errespetatu, libertadea gorde.

Kennedy prest dago bakea gura dabenari bidera urtetako. Gerra negargarri baten mamua aldentutako alegiñak egin gura dauz. Baiña argi esan dau: ez gaitu bildur lozagarriak iñoiz atzeratuko.

Argi ikusten dogu Kennedy-ren propositu danen erdian Jainkoaren legea dagola. "Jauna, ipiñi Zure eskuak bere eskuetan".



ANAITASUNA

SUPLEMENTO DE LA HOJA «ANAITASUNA» DE GUIPUZCOA

VIII URTEA - N.º 76

ZEZEILLA (2) 1961

DEPOSITO LEGAL SS. 1092-1959

Cuba gurutz bide larrian dabil. An dana dago iruntzetara, dana aldrebes. Gizonaren deretxo guztiak zapaldu dira. Eta Kennedy-ren dei zintzoak ez dau izan erantzunik. Norbaitek, Fidel Castro "teddy boy"-ganberro bat dala esan dau. Baleiteke. Dana dala borondate on gitxi ikusten da beregan. Urte bien barruan Cuba lur jota gelditu da. Eta amar urte gitxi izango dauz lengo mallara igoteko.

Askok uste dabe, Castro indarrez zapaldutea izango litzake la onena. Baiña Cubako egoera ez da Estaduko golpe bategaz konpondutetokoa. Gizonak bonbaz il leitekez, ideak ez, ostera. Fidel Castrok metxa bildurgarri bat biztu dau Hispanoamerika guztian. Eta metxa ori amatetako,



an, zein Afrika edo Asian, justiziko bidea da bide bakarra: justizi geiago. Kennedyk arduraz esan dauana: zuzentasuna.

Cubako ori, ejemplo ederra izan da Hispanoamerikako naziñoentzat. Ikusi dabe komunismoa pizti txarra dana. Baiña alan da guztiz be urduri ta artekadu dago gauzea. Ez dago bear dan beste justizi, eta sarritan ez dira gizonaren deretxoak errespetaten. Eta bien bitartean, or dabil komunismoa, al daben moduan musturra sartzen.

Ordu larrian dago Hispanoamerika, eta Ipar-amerika ondo konturatu da. Kennedyk eskeiñi deutse laguntasuna, eta betarrak ontzat artu dabez bere eskeintza on eta zintzoak.

J. K. Guarrotxena

FAMILI'KO ZORIONA LORTZEKO

II. - EMATZEA

EZ DEUST BIERRIK EMOTEN

Au eta antzeko berbakaz goraiatu gura dabe emazte askok euren senarra. Bere izate ona edo bere jatoritasuna. Berba batean, ondo ordenatua dala esan gura dau. Baiña alperrik. Ez da ori bere senarrak gura dabena. Españian eta beste lekuetan be bai, aintzakotzat daukoe gizon guztiak desordenatu xamarrak izatea. Gizon aundi eta apartekoen doia dala esaten dabe. Emazte guztiak bear deutsoe ba uste ori bere senarrari. Esan, etxeko "jenioa" dala zure senarra.

ATSEGIN AL JATZU JANTZI AU?

Sarri ogetik jagi ta laixter emakume askok egiten dautsen itauna auxel! Baiña ez dakizu gaba txarra igaro dabela, begirik itxi barik?

Jantzi barri bat gura dozula ta zure senarrak azkenengo itza emotea gura dozu? Baiña orrek ez dira orduak, gauza orretzaz berba egiteko.

Eta ondiño okerragoa da, jantzia gizonak elejidutea eta zuk, gusto txarra daukola, ez daukola gustorik ta abar... atzetik berba egitea. Ez. Emazte zintzoak berak aukeratzen ditu jantziak eta gero senarragana joun atsegin au emotera.

Senarrak pozik goralduko zaitu jantzi egokia erosi dozulako. Ta askotan, bere barruan ebillen eta esatera ausartzen, atrebiduten, etzan pentsamentua igarriko deutzazu: "Newre andrea, naiz jantzi zarpil batzuk jantzi, pitxia baizen ederra da".

Eta askotan jazoten dan gauza olako au: Zuk bape uste barik, senarra iru edo lau lagunekaz sartzen jatzu etxean. Ta jakiña! Ez eutsun ezer esan-eta, ezebe preparau barik aurkitu zaitue. Zu, sua dariozula asten zara senarraren kontra beriak eta bost esaten. Zeozer esan baeutsun, baiña... ezebez!

Amarretik batek ez dau gogo onez eroango gizonaren erru au. Arrazoi ugari dozula agireka egiteko? Baiña etxako iñori atsegin, besteen aurrean asarre ta agirekak entzutea. Gatxa dala umore onean eroatea? Egia, baiña olako gauzetan erakutsi bear deutzazu zure senarrari zure emakumetasuna ta zure maitasuna.

EZ GEIEGI GORALDU

Astiro ibilli zure laudorio guztietan. Ez geiegi goraldtu zure gizona. Lagunen artean zure senarraren goraldpena egiten asi zarenean, senarren artean eredutzat jartzen dezula, askotan ere kontra ari zara. Ez bazara konturatzen zure kapritxo eta guraritarak makurturik bizi dan gizon baten ertratua egiten asi zareala; eta zure senarra baiño zure morroi edo kriadu bat geiago dirudiala.

EZ GEIEGI ARDURATU

Naiz zure senarra zaar kejoso bat ez izan, zure ardurua eta kariñoen bearrean aurkitzen da. Ta ondo dago zuk arretan artzea; baiña ez geiegi arduratu. Lagun arteko otordu edo olgeta-aldi batean zure senarraren gaiñetik kendu barik asi bazara, egizu au: jan trankil eta ez nekatu geiegi... Zure senarra artegatu eta mindu egingo da. Izan be, besteen aurrean, ezertarako balio ez dauan papela egin-eraiten deutzazu. Andrea gaiñean ez badauko, bost xentimela balio ez daben itxura. Ondo dago zure ardurua ori, baiña zarata barik, iñor konturatzen ez dala egin bear deutzazu.

Beloki'tar Deunoro



"Nire pazientzia gitxituaz doia" diño Dr. Fisher'ek.



etorriko ete dira ba azkenen Erromara anglikanoak

Kantorbery'ko arzobispo Dr. Fisher'ek bere kargua ixteko erabakia artu ebanian muin asko beste herba onetxek be esan ebazan irurogeita iru urteko gizon arek: "...Nire kemena ez da makaldu, eta 'ziur nago nire buru-argitasuna geiagotuaz doia-la; baiña nire pazientzia gutxituaz doiana be badakit eta onexegaitik nik uste dot nire ordua eldu dala".

Kristau-eleizen alkartasun naiak Inglaterrako Eleiza ikaratuta dakarrena gauza jakiña da. Fisher jaunak gai ontan pauso aundiak emon dauz. Eta baliteke auxe iza-tea Dr. Fisher'i bere buruzagitza ixtera era-gin deutson iturburua, Aita Santu Juan XXIII'garrenari ikustaldi ustebagea egin ondoren itxi dau ta. Berak lenengo pausoak emon dauz; urrengoari jagoko falta dira-nak emotea.

Kristau-eleizen urreratze onek, Inglate-rako Eleizaren aldetik, doktriña gauzetara zuzendu biar dau batez be eta ontarako Bu-ruzagi bizkorra bear da, teologi gaieri buruz batzar eta alkar-izketak zuzen eroan lei-kezan gizon argi bat. Zein izango ete da gizon au? Orain Inglaterrako buruzagi ja-rria izan dan York'ko arzobispoa ete da?... York'ko arzobispo au Arthur Ramsey da. Oso gizon jakintsua, baiña ez ain organi-zadore on ona be. Dana dala ango aundikiak ala naita, gaur Kantorberyko arzobispoa da, ta Inglaterrako Buruzagi.

Buruzagi barri au gazte xamanra da oraindik, berrogei ta amasei urte daukoz. Eskonduta dago baiña ez dauko semerik. Oso gaurko edo modernua da, eta alde on-tatik, gaurko egunerako gizonik egokiena. Politika gauzetan Ramsey jauna liberala da. Sarritan egin dautso kolonismoari aur-ka; desarmearen eta anaitasunaren laguna lez agentu da askotan.

Joan zan garagarrillean Aprika aldetik jira bat egin eban eta ango nazionalisten

naia, au da, Rhodesia eta Nyasalandia'ren federaziñoa, lagundu eban. Lengo Urriam barriz Scarborough'ko laboristen Kongre-suan izan zan eta gero bere eleizan seku-lako sermoi bat bota eban teknika barriari eta kapitalaren eta lanaren alkar-ikusari buruz, langilleak nola jokatu bear daben esanaz.

Oraingo kargu barrian Ramsey jauna Fisher'ek asitako Inglaterrako eleizaren eta eleiz katolikoaren urreratze lan oni jarrai-tu biarrian izango da. Ramsey jaunak oso gizon pake zalea emoten dau baiña dotriña gauzetan arria bezin da gogorra.

Eleiz bien burruka gogorreña Aita San-tuaren ezuskortasunari buru dago. Ramsey kompromete dago Aita Santuari obispoen artean lentasuna aitortutean baiña ez ez-us-kortasuna (infallibilidad).

Eta Eleiz Ama santak gai ontan ez dau atzera egingo, ezin daikelako egin, sinistu bearreko egi bat da au-ta; Auxe da gaur egunean mugarik burrukatuena eleiz bien artean.

Agustin Biain

6'garren orritik dator

moa, nai ta nai ez. Zuzentzaillentzat es-kola apartekoak daukez. Rusiatik kanpora be aurkitu dira eskola oneek.

Geinetan bizitza gogorra eroaten dabe: goizeko seiterdietan jagi eta arratsaldeko zortziterdietan biarrari itxi.

Ara emen komunismoatzaz gauzatxo ba-tzuk. Datorren illean jarraitzekotan ixten dot. Euren metodoak edo biar egiteko mo-duak esango dautsuedaz. Bien bitartean ikasi komunistaegandik lan egiten. Eta pen-tsatu baita, zelan kontra egin geinkioen.

Danak diñoenez, Eleiza eida, bakarrik, bear dan beste indarrekoa komunismoari kontra egiteko.

F. Antonio Zubizarreta



DAKAR ALDETIK

Gaur, zelan bizi garean esango deusuet, eta zer egiten dogun emen frai Alberto-
ta biok.

Beste urteetan —laugarren urtea da oraingoa— dempora guztian egon giñean itxasoan. Aurten barriz, errian geratuteko asmoa ekarri genduan. Itxasoan baiño obeto egongo giñake, eta arraintzaleeri mese-de geiago egingo geunskioe. Pentsamentu orregaz eldu gintzazan Freetown-era. Baiña ango gauzak ez ebiltzan ondo, eta pena aundiagaz joan bear izan genduan barrero itxasora.

ARRAINTZALEEN BIZIBIDE LATZA

Gogorra, itxasoko bizikerea. Errian bizi zareenok, ez dakizue zelakoa dan arraintzaleen bizimodua. Bertora etorri bear zeun-kee, euren ibilkera gogorra ikusteko; eta orduan, batez-bere arraintzaleen andrak, bigunagoak, samurragoak izango zintzake-ze eurakaz, errira naiz etxera datozanean.

Bizimodu gogor au gorabeera, gu biok pozarren ibilliko gintzakez beti itxasoan, Itzas Apostoladuak ori eskatuko baleusku, eta arraintzaleentzako probetxu geiago ortik etorriko balitza.

Freetown-en geratu eziñean, Dakar-ren

desembarkatzea erabaki genduan. Bertora etorri orduko, aste bi egin genduzan itxasoan. Arraiñik egongo zalakoan, egotik ibilli giñean aibeste egunean, Sierra Leona ta Liberia-ren arteko kantil ertzean. Antz igaro genduzan Gabon gaua ta Nativitate eguna. Zoritxarrez, ez genduan arraiñik jo.

Aolantxe dira arraintzako gauzak. Batzutan asko; beste batzutan, ostera, ez be ez. Ez da naikoa arraintzale fiña izateko suerte apurtxu bat-bere euki bear izateko da.

Asi giñean gero gorazka gorazka, erritar geienak egozan tokirantz. Batu gintzazan eurakaz. Atrapatu genduan polito arraiña. Eta gero ta gero be, sartu giñean amabostgarren egunean Dakar-reko portuan urtarrillaren 6-an, iru Erregeen jaietan.

ATSEKABE BARRIAK

Dakar-reko bizimodua guztiz karua da. Gauza guztiak asko kostetan dira, eta nekez topetan da biziteko toki merke ta dezente bat. Gaiñera, legorreatan geratuteko, nik beñik bein eleiz agintarien baimena bear neban; eta aste atan, alan bearrean, Dakar-reko artzobispoa Frantzia-n egoan.

Orreigaitik, etxea billatuteko eta beste emparaduak arreglatu artean, frai Alberto bakarrik lotu zan errian, eta ni osterabere itxasora.

Ordurarte nik ez neban aurten esku lan gogorrik egin nire barkuan. Iru urte lara eta baltz egin dodaz Bermeo-ko arraintzaleakaz, eta uste neban eldu zala momentuan, esku lan gogorrari itxiteko eta eginbear espirtualetan geiago jarduteko. Uste neban, laugarren urtean Bermeotarrak jakin-go ebela zein dan kapellau baten arazoa eta zetarako Kristok bialtzen nanduan euren artera. Zoritxarrez, oraindiño Bermeo-ko arraintzale askok ez dakie zein dan sazerdotearen benetako eginkizuna. Ori dala-ta, sei eguneko mare atan, neure amurru guztiagaz, txiparrari eldu neutsan; eta egun guztian, goizetik gauerarte, entxaduak soñean, itxasora ura botaten ibilli nintzan.

Seigarren egunean, portura etorri giñean, neverak bete bete eginda. Inoizko arrain geien ekarri genduan: kasik 27 tonelada. Aste atan, arraintzu onak egin ebezan Bermeo-ko barku guztiak. Eta obeak egingo zituen, Dakar-reko portua obeto preparatuta egon balitz.

DAKAR-REN BIOK

Ordurako frai Alberto-k, aurkitu eban bere bizilekua. Planta baja polit bat, mu-

ble ta guzi, portutik urre; eta dana merke merke, ez siñestuteko prezioan. Eskerrak Louis Fourment Achalandabaso-ri. Bilbaitarra da bera. Aitaren aldetik frantsesa, ta amarenetik Maruri-koa. Bere aititak Australia-ko lana denda bat eukon Atxuri-n, orain 44 urte direala. Berak lortu euskun etxea, eta asko lagunduten deutse Bermeotar guztieri. Gizon ona, gure adiskide aundia. Bertoko ferreteria aundi baten lan egiten dau, eta edozetarako dago gure esanera.

Emen gagoz ba, Dakar-ren, Parent kalean, 5-garren numeruan, Kermel merkatuaren alboan. Emen daukozue zuen etxea.

Bost t'erdietan jaigiten gara, eta seiretan joaten naiz frai Alberto-gaz mezea emoten San Frantziskoren Ordenako Monja Zurien kapillara. Eurak etorten dira gure bila, eta kotxean eroaten gaitue, urrun samar bizi dira-ta.

Meza ostean eta eurak emoten deuskuen armosu ederra janda gero —parkatu, nik konfiantza guztiagaz verba egiten deusuet—, vuellatxu bat egiten dogu portura, eta barkuren bat etorri ete dan ikusteko. Beti egoten da lana barkuctan guretzat, batez-bere frai Alberto-rentzat.

Goizetan, bera radioak komponentzen egoten dan bitartean, ni portuko dispensario-ra joaten naiz tratamentu espezial bat bear daben gairioakaz, eureri interprete lez lagunduteko.

Arratsaldeetan, frai Alberto joaten da dispensario-ra, eta antxe egoten da osatu ta osatu, bere erropa zuriagaz ta guzti, ordu bietatik seiretararte, saldarrak kentzen, agiñak ataraten, zauriak josten, belarriak garbitzen, pikurak egiten, eta abar. Toki

polit bat itxi deutso bertako medikuak, eta errezipide guztiak emon deutsoz lan egiteko. Frai Alberto-k kuadernu baten apunteten dauz berak egiten dituan tratamentu ta osakuntza guztiak, eta lantzean bein medikuari presentetan deutso, beronek firma daian. Bear larregi egiten dau gizai-koak; eta datorren urtean ona bagatoz, laguntzailleren bat edo bi emon beariko jakoz derrigorrean.

Nik ez dot berak beste lanik egiten, eta urrik emon be. Gurako neuke. Oraindiño ezin dot baiña. Nire zeregin printzipala, espirituala da; eta orre.xegaitik, gatxa da, eskasa da, ixilla, garratza, legorra, geldiro geldiro egiten dana, eta sarritan barruko negarra atarateñ deustana. Ori gorabeera, beti egiten dot zerbait: mezea emon, radiotik verbalditxuak bota, frai Alberto-ri lagundu, interprete egin, kontseju onak emon, ezjakiñeri kartak idazten lagundu, bertoko barriak orko periodikoetara bialdu, eta olako gauza txikitxurik asko.

Oraññarte ondo gabiltza. Osasun ona daukogu biok. Portuan barkurik dagoanean, bertan jaten doguz bazkari ta afaria. Bestela, geu geuretara komponentzen gara eguerditan zeredozer jateko geure kuartutxuan; eta arratsaldean, gallego baten hostatu pobre batera joaten gara afaltzen.

Ba-dakizue orain gure bizimodua. Erregutu asko gure alde, gure apostoladuak arraintzaleen arimetan on egin daian.

Gure zuzenbidea: B. P. 1400, Dakar, Senegal.

Agur, wrrengoarte.

Dakar, 1961, urtarrillak 31

Aita Imanol Berriauta, O.F.M.

Komunismoaren dotriña

1.—Materia besterik eztago. Gizona eta gizadia materi onen zatiak ze ezтира. Soziedadea gizon arteko artu-emonaren frutua. Artu-emon oneek, batez be ekonomikoak, soziedadearen oñarriak dira. Eta soziedade onen istoria lege derriorezkoak eta bardiñak zuzentzen dabe.

Libertadea ezta lege naturaleengandik norbera askatutzea, eurak ezagutu eta norberaren usteetarako zelan aprobetxatu leikeezan jakitea baño.

2.—Soziedade onetako aurrerapen guztien eragillea gauza materialen produziñoa

da. Soziedadea itsua da. Derriorezko legeak eraginda egiten dau dana. Olantxe pasau da bost malla oneetatik: lenengo gizonena, esklabuena, feudalismoena, kapitalismoena eta komunismoena. Gizadi onen aurrerapenik aundiena eta azkenengo mugea komunismoaren etorreria da. Orduan ezta izango pobre eta aberatsik. Ezta egongo klaserik eta propiedaderik.

3.—Eztago betiko dan moralik Estadua-gaz ondo dagoana dana dago ondo eta dana da ona. Beren kontra dagoana dana txarra. Ostutea, erretea, iltea, dana da ezin ohea

komunismoaren komenientzia bada. Gizonak onak edo txarrak direan jakiteko be orixe jakin bear da: Estaduakaz zelan portaten diran.

Orrexegaitik Relijiñoa gauzarik eta txarrenatarikoa da, gizonen benenoa, eta benenarik txarrena, eta ori Estaduaren kontrako gauza asko agintzen dauazalako.

4.—Arin edo nekez etorriko da Estadu

daukez, eta bete egin bear nai ta nai ez armaen indarrez besterik ezpada. Nai ez tabenak "purgau" egiten dabez.

5.—Komunismoa ateo da, au da, Jaungoiko bagea. Materia besterik ezpadago eta dana bada materia, ezin egon Jaungoikori ez antzekorik. Euren obligaziño gogorra da Jaungoiko eta erlijiño guztien kontra egitea. Batez be Katolizismoaren kontra, ta



Komunistak sarritan kristiñau zinizotzat urratzen dira

sozialistea. Demriorrezko gauzea da.

Komunismoa obreruen partidua da. Obreru klasea da rebuluziño au egiteko aukeratua. Rebuluziño au gerrearen bitartez edo al dan moduan egin bear da, dana da ona orretarako bada ta.

Rusian egin eben au lenengo aldiz. Bertan dago 1956-ko urtetik "Kominform", mundu guztiko komunismoen zuzentzaillea. Euren biarra beti da ixilla. Alde guztietan egonarren ez dira presentaten aintzakotzat, bestela baliteke inork ez artzea ta. Azpitik egiten dabe euren egitekoa.

Euren burutxoak ondo aukeratuta egoten dira, eta obeto pagauta. Egizko komunista izatea oso gatxa da, kondizio gogorrak bete bear dira. Orrexegaitik, Rusian bertan be sei milloi dira bakarrik komunistak, au da, 3%. Partidukoa izatea gauza aunditzat eukiten dabe. Regla ikaragarriak

rena eida eurentzat eta. Orretarako esan bear dautsee erlijiñoa benenoa dala, aberatsen erlijiñoa, euren arerioen erlijiñoa.

Paulov dabe komunistok euren maixua Mutikoak artu nai izaten debez batez be eurentzat. Zaarrak ez ei dabe bear eta. Ume umetatik artu ta jo ta ke diardue mutiko oneen buruak komunista pentsamentu ondo ase arte. Alemanian, komunistaen aldean, 1956-ko urtean, aste oso-oso a igarotzen eben ango mutikoak. Españaiko azkenengo gerrako kantak ikasten. Gero jolas ugariak be izaten dira. Gerrak egiten dabez komunista eta faszista artean. Gerra oneek be amaitzen dira komunistaen triunfoakaz.

Askenean umeak sinistu egiten dabe. Eta asitakoan or botaten dabez mundu guztian zear komunismo azia zabaltzen. Rusian dan-danak ikasi bear dabe komunis-

ZOROEN BONBAK

Norteamerikak beren lenengo bonba atomikoak, Nagasaki eta Hiroshima erri errukarrietan hotu ebazenetik, nazio aundiak ez dira lotu bonba au lortu arte.

Miloi ia erdi gizon il arren ez dira bildurtu, eta ezta negar askorik egin be.

Gaur egunean or dabiltz jakitunak, bakotra norberen nazioko agintarien menpean, geroago eta bildurgarriagozko bonbak asmatzen.

Bide onetatik lurraren ganetik gizona kentzera goaz, eta dana auts biurtzera.

Bonba atomiko oneen kontra munduko bazter guztietatik iatorkez zerutar deiak, esanez izan dedilla lenengoa eta azkenengoa Japongo erri biena.

Ara emen munduko borondate oneko gizonari egindako deiak:

PIO XIII. Aimbeste indar gure eriotzarako gastau bage, sinismen guztietako jakitunak eta naziño guztiak sentidu bear leukie obligazio aundi bat: atomiko indar guztiak gizonaren onerako aprobetxatzea.

EINSTEINEK. Gure egunetako zereginik aundiena auxe da: mundu onen ganean dagon zigorrik aundiena beste bide baletik zuzentzea.

CHURCHILLEK. Zorakeri aundi bat izango litzake, arma atomikoak aurrerantzean ez dirala usauko pentsatzea.

ALEMAN JAKINTSUAK. 1957'ko apirilaren 12an, amazortzi jakitun, danak alemanitarrak, alkar artuta, Bundeswehren arma atomikoen kontra jagi ziran.

NIEMOLLER ARTZAIAK. Beste zazpi artzai protestantegaz bat eginda len beste alemanitar jakintsuak esandakoa bera diñoie barriro.

ALBERT SCHWEITZERREK. (bakearen Premio Nobel) Radio Noruegaren bitartez, Afrikako Landebere gairotegitik mundu guztiko gizon daneri, euren iritziagaz nazio guztiko agintarieri erabagi bat artu eragiteko eskatzen deutse: atomiko arma guztiak baztertu deiezela.

INGLATERRAĶO JAKINTSUAK. Nazio onetako atomiko jakintsuak, bonba atomiko oneen ondorengo arrizkoak agertuz, liburu bat ateraten dabe. Eta 1958ko gara-

garrilarren egun baten agerpen bat egiten eben bonba onen kontra.

ESTADOS UNIDOS. 1957an bi milla jakintsuk erriko agintarieri atomiko ezperientziak amaituteko eskatzen deutse.

JAPON. Eten bageko protestak eta gainera gogorrak jatorkuz Japon aldetik. Eta larogei fisikok ontzat emoten dabe alemanitar jakintsuek egiña.

INDIA. Nehru lendakariak bere berbal dietan atomiko gerrate baten arriskoak zerrri agertu dauz. Eta bertako Parlamentuak zarritan eskatu dau atomiko pruebak bein edo bein galerasoteko.


FRANTZIAN. Lanza del Vasto eta beste berrogetamar filosofok kalezkale agertu eben euren protesta.

Beste olako asko ekarri geinkez ona, baño naikoa izango da, mundua zelam dagan jakiteko.

Rusiako N. Semenov jakitunak diñonez munduaren etorkizuna onantxe ikusten eida: zoragarriko edertasunez betea edo negarrez eta autsez betea.

Berak diñonez, gizon danak eidauke obligaziño aundi bat, mundu onetan bizi diranentzaz eta geroago etorriko diranatzaz: bonba oneek baztertu.

Iñaki Arriaga



«Miloi dolar orreek ez ete legokez obeto kantzerraren kontra gaztauta? diño Von Braunek.



1960'ko AMAR-POZAK

Ezta mundu gaizto eta zital onetan be-
dana negarra eta tristurea. Izaten dira bai
berton be lantzian bein alako pozkaritxoak
eta poz aldiak. Ara emen igaro dan urte
onetako amar:

1) DACHAU ETA ORADOUR. Azke-
nean, Munichko Batzar Eukaristikoa dala-
ta, aitortu dabez alemanak gerra denporan
egindako astakeri guztiak. Nun eta izan be
Dachaunen. Konzentrazino kanpo onetan
funtzino ikusgarriak egin dabez.

Prantzesak, euren aldetik, Oraduor errian
beste orrenbeste egin dabe. Alemanari
euren makurkeri guztiak parkatu deutsez,
kristinautasunez bateriko funtzino batzue-
tan. Itxuraskoa izatea ori da! Izan be danok
gara aniak, eta bakea nai badogu parkatzen
ikasi bear dogu.

2) JUAN XXIII. Ara or 80 urteko gaz-
te bat. Mundu onetako estura ta larritasun
artean zuzen eta seguru ioakun gure ar-
gia. Beren ardurarik aundiena munduaren
bakea da. Auxe benetako gizon bakuna,
ona ta alegria, beti pozik eta esperantzaz
beterik bizi dana. Kristinau eta mundu
guztiantzat argia.

3) JAKINTSU BAT. Jean Ronstand,
Frantziako biologo aundia da. Ateoa izana-
rren gizon zintzoa eta zuzena. Berak esan
deusku auxe: "Jakintzak gauza bat era-
kusten deusku: bata-besteaganako maita-
suna. Eta ortik zuzen-zuzen kristinautasu-
nera goaz".

4) BODA BAT. Beljikako errege Bal-
duino Fabiolagaz eskondu da. Mundu guz-
tia poztu da boda onegaz. Fabiolaren triun-
foa umiltasunaren eta bakuntasunaren
triumfoa izan da izan be. Biak dira seku-
lako kristinau onak, bein baño geiagotan
erakutsi deuskuen lez. Danok poztu gara ba
errege-boda onegaz.

5) GRENOBLEKO ASTEA. Frantziako
erri onetan estudio aundi eta sakonak egin
dira, batez be sozialak. Danen konkluzioa
auxe izan da: "Zibilizaziño baten benetako

aunditasuna ermentxe ikusten da: debilita-
nari dagokioen errespetua badautse: zarr-
ri, pobrieri eta prisionerueri".

6) POLITIKO BAT. Alemaniako kan-
tziller dan Adenauerrek auxe esan deusku
bere azpikoeri: "Mundu onetako aberas-
sunen egarria eta semerik euki ez naia ta-
tera doaz. Onela bagoaz, ogetamar urte
rru Alemania guztia zaarren nazio bat izan
go da". Tristea da mundu materialista
orretara ikustea. Betozen Adenauer asko,
sasorako.

7) TEKNIKO BAT. Badakizue Val-
Braun Amerikako proiektu guztien asma-
tzaillea dana. Bere ama maitea ilten ikusi
rik bizikoak artuta, auxe esan dau: "Zer-
rritan itaundu dot auxe: orrek espaziora
arrapatzeko emonda dagozan eun milioi
dolarrok ez ete legokez obeto kantzerrare-
kontra gastatuta?" Oraingoan be, beti ja-
barruko miñak gauzak zuzen erakutsi da-
tsoz jakintsu bateri.

8) TESTAMENTU BAT. Logango (Bi-
jinia) mineru baten testamentua da. Joan
Chaffinsek ikusirik ganalduta egoala munda-
zulo aretan, testamentu auxe idatzi ebat
eta bere biarreko lanparatxoan eskegi
itxi eban: "Mabel, iñoiz pentsatu dome-
baño geiago maite zaitut; zaindu ondo sa-
meak eta erakutsi eiozue Jaungoikoare-
maitasuna".

9) MEDIKO BAT. Thomas Dooley Ame-
rikako medikoak len Albert Schweitzerre-
egin ebana egin dau: itxi alde batera be-
ontasun eta nasaikeri guztiak eta Bietnam
go pobreen artean sartu da. Jaungoiko onak
lazer, ordainduko dautso bere egite ona,
ziak eldu dautso berari be ta. Alan da guzti
be, operau ondoren, barriz asi da diru eska-
bere pobreen alde. An dabil barriz be Ebe-
nango pobriekin, eriotzaren zain, aintza
beren pobreen artean il nairik.

10) MUTIKO BI. James —amabi urte-
Lenari—amalau—auxe itaundu dautse: "Zer-
eskatuko zaunskio Kristori agertuko bal-
txatzu". Jamesek erantzun eban: "Iñoiz za-
katuko balitxat olakorik auxe eskatuko
neunskio: izan dedilla jueza neure aita
amaren artean ia bein edo bein dibortzi-
itxi ta alkartzen badira". Eta Lenak: "Es-
katuko neunskio emon daiztala diru gutxi-
go nai badau, baña bake geiago nire gur-
soeri. Etorriko balitz Kristo gurera der-
preparatuko leuskioe banket bat. Bai-
Kristok esango leuskioe: "Zergaitik esta-
zue zabaltzen pobreen artean diru au-
Auxe pozgarria, umeak erakusten de-
kuena.